



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Hizkuntza Eskola Oficialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

secretaria@eoi-bilbo.net
www.eoi-bilbo.net

EUSKERA SAILA

PROGRAMAZIOAREN LABURPENA
PROBEN DESKRIBAPENA
BIBLIOGRAFIA

2008-2009 IKASTURTEA

ONARRIZKO MAILA (A2)

HELBURUAK

Zeintzuk dira Oinarrizko Mailako 2. urratseko helburuak?

Oinarrizko Mailako 2.urratsaren amaieran ikaslea gai izango da

- **Ulertzeko** elkarrizketa sinpleak eta ideia orokorra iragarki edo mezu sinpleetan, irudien laguntzaz.
- **Ulertzeko** ohar eta gutun sinpleak, eta aurkitzeko informazio zehatza material informatiboetan.
- **Idazteko** mezu sinpleak, gutunak eta gertakariak, testuari koherentzia emanez (kausa eta denbora egiturak erabiliz)
- **Parte hartzeko** eta moldatzeko eguneroko elkarrizketetan (lagun artekoetan, banketxeetan...) informazio zehatza trukatu.

EDUKIAK

Zer funtzio linguistiko ikasi behar dira?

Helburu hauek lortzeko hurrengo funtzio linguistikook burutzen ikasiko du ikasleak:

- Informazio orokorra eman eta eskatzen (oraina eta iragana alderatu, laburpenak egin, hipotesiak adierazi...)
- Jarrerak eta iritziak adierazi eta baloratzen (interesa edo interesik eza adierazi, proposamenen baten alde edo kontra agertu...)
- Ingurukoak konbentzitzen (zer egin proposatu, aitzakiak adierazi arrazoiak emanez...)
- Ingurukoekin hartuemonak edukitzen

Nolako testuak irakurtzen dira?

- Idazki laburrak eta errazak (gutun pertsonalak, publizitate-testuak, komikiak...)

Nolako testuak entzuten dira?

- Elkarrizketa arruntak, mezuak, iragarkiak, albiste laburrak.

Nolako testuak idazten dira?

- Mezu eta gutun sinpleak, oharak, formularioak, narrazioak eta deskribapenak.

Zer hiztegi ikasten da?

- Identifikazio pertsonalari loturiko lexikoa.
- Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.
- Eguneroko bizitzako zereginak.
- Aisialdia eta bidaiak.
- Jende-arteko harremanak, hizkuntza eta hezkuntza.
- Osasuna eta elikadura.
- Zientzia eta teknologia.

Euskal Herriko kulturaz zer ikasten da?

- Izenik ohikoenak.
- Etxebizitza tipikoak eta ezaugarri geografikorik ohikoenak.
- Gizartearen ezaugarriak eta Familia bizitzako ohiturak.
- Erreferente kulturak.

Zer gaitasun behar dira jarduera komunikatiboak egiteko? (egitura gramatikalak)

*Eskolako web orrian eta liburutegiko programazio-liburuan aurkituko dituzu.

EBALUAZIOA

TREBETASUN BAKOITZA NEURTZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

Irakurritakoaren ulermena

Ikasleak maila honetako gaitasunak lortu ditu gai bada

- Kale, denda, jatetxe, garraibide eta leku publikoetako jarraibideak, adierazpenak eta oinarrizko informazioa ulertzeko.

- Eguneroko jarduera eta egoerei buruzko mezu laburrak ulertzeko.
- Eskutitz pertsonal laburrak eta sinpleak ulertzeko.
- Eskutitz formal eta praktikoa laburrak ulertzeko.
- Irudi eta guztiko testuen oinarrizko informazioa ulertzeko (menuak, zerrendak, ordutegiak, e.a.)
- Irudi eta guztiko testuen oinarrizko informazioa aurkitzeko (menuak, zerrendak, ordutegiak, e.a.)
- Kazetaritza-testu labur eta sinpleetako informazio garrantzitsua identifikatzeko.
- Narrazio errazak eta kontaketa laburrak ulertzeko.

Entzundakoaren ulermena

Ikasleak maila honetako gaitasunak lortu ditu gai bada

- Bere aurrean gertatzen diren elkarrizketak orokorrean ulertzeko edo ideia zehatzen bat ulertzeko, astiro eta argi egiten bada, baita gai batetik bestera noiz pasatu den jakiteko.
- Eguneroko esaldi, adierazpen eta hitzak ulertzeko (adibidez, pertsona jakin bati buruzko informazioa, familiari buruzkoa, lanari buruzkoa...)
- Agindu eta zeregin sinpleetan zer eskatzen zaion ulertzeko, informazioa eskatzeko kapaz bada (adibidez, banku batean).
- Mezu edo ohar argi eta errazetako ideia nagusia ulertzeko.
- Albistegietako notizien ideia nagusia ulertzeko, irudien bidez emanda badaude.

Idatzizko adierazpena

Ikasleak maila honetako gaitasunak lortu ditu gai bada

- Eguneroko jarduera eta egoerei buruzko oharak eta mezu sinpleak idazteko.
- Eskutitz pertsonal sinplea idazteko, eskerrak emanez, barkamena eskatuz edo bere buruaz edo ingurukoek hitz egiteko (familia, lana, lagunak, zaletasunak...).
- Eskutitz formal sinplea eta laburra idazteko, zerbitzuren bat edo informazioa eskatuz.
- Gertaera jakin bat esaldi errazen bidez deskribatzeko, gertaera hori noiz eta non izan den adieraziz (adibidez, jaia, istripua,...).

Ahozko adierazpena

Ikasleak maila honetako gaitasunak lortu ditu gai bada

- Bere burua eta egoera deskribatzeko (adibidez, non bizi den, familia, ikasketak, lana, zaletasunak,...).
- Bizi izandako esperientziak erraz deskribatzeko.
- Ingurukoekin hartuemonetan hasteko (adibidez, agurtzeko, barkamena eskatzeko, norbait gonbidatzeko...).
- Transakzio eta kudeaketa errazak egiteko (adibidez, bankuan, bidai agentzian, dendan).
- Informazio zehatza emateko eta jasotzeko (adibidez, leku jakin batera zelan heldu).
- Eguneroko egoeretan ados jartzeko (adibidez, mediku-kontsultetako hitz-orduak).

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Azterketariak ondoko atzetan zelako trebetasuna erakusten duen ebaluatuko da:
Irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpena, entzundakoaren ulermena eta ahozko adierazpena.

BAREMOA

- Irakurritakoaren ulermena → %25 - 3 ataza, 40 minutu. 20 puntu (gutxienez: 12 puntu)
- Idatzizko adierazpena → %25 - 2 ataza, 45 minutu. 20 puntu (5+15 puntu) (gutxienez: 12 puntu)
- Entzundakoaren ulermena → %25 - 2/3 ataza, 20 minutu. 20 puntu (gutxienez: 12 puntu)
- Ahozko adierazpena → %25 - 3 ataza, 15 minutu. 20 puntu (gutxienez: 12 puntu)

Maila gainditzeko, ikasleak, idatzizko hiru probak gainditu beharko ditu lehenengo, eta gero ahozko proba.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, irakurri HEOaren → www.eoi-bilbo.net web orriko Programazioa

TARTEKO MAILA 2 (B1)

HELBURUAK

Zeintzuk dira 2. urratseko helburu orokorrak?

Tarteko mailako 2. urratsean ikasleak hauxe ikasten du:

- Eskolan eta eskolatik kanpoko hainbat egoeratan erabiltzen ikasten dabilen hizkuntza, bera bertan dagoela edo modu birtualean, gai zehatz, orokor edo kulturei buruz bere iritzia azaltzeko eta jendearekin komunikatzeko.

- Elkarrizketak ulertzen, bertan parte hartzen eta berba zuzen egiten, ahoz nahiz idatziz, baina erregistro estandar formalean eta informalean.
- Eguneroko egoeretan eta lan arloan gero eta hobeto moldatzen, egoera horietan erabili behar diren esapideak, keinuak, erregistroak eta tratamenduak erabiltzen.
- Behar diren baliabide linguistikoak barneratzen erabilera praktiko eta formalaren bitartez eta estrategiarik onenak erabiliz.

Zer jarduera komunikatibo burutzen dira?

Ahozko jarduerak

Egoera eta gai askotan zuzen parte hartu; horretarako seguritate eta jario nahikoa erabili, egitura eta kohesio erraza baina eraginkorra, eta, kanpoko azentua eduki arren, ulertzeko moduko ahoskera.

- Elkarrizketak.
- Eztabaidak eta debate formalak.
- Negoziazioak.
- Informazioa elkarri trukatu.
- Deskribapena eta narrazioa.
- Jendaurreko aurkezpenak eta argudio testuak.

Idatzizko jarduerak

Testuek egitura linguistiko nahikoa eduki beharko dute, eta antolaketa eta kohesio errazak baina eraginkorrak; gainera egoera komunikatiboa hartu beharko dute kontuan.

- Berbalagunei mezuak idatzi.
- Eskutitzak: norbere ingurukoentzat eta eskutitz formalak.
- Oharrak idatzi informazioa emateko edo eskatzeko.
- Txosten laburrak prestatu.
- Iritzia eman nolabaiteko ziurtasunaz.
- Jarraibideak, lan-eskaerak...idatzi.
- Norberari gertatutakoak azaldu.
- Benetako nahiz alegiazko gertakariak kontatu.
- Saiakera errazak idatzi.

Entzunaren ulermen-jarduerak

Gai orokorre buruzko interakzioak eta mezu luzeak, hain ohikoak ere ez diren egoeretan sortuak, erregistro estandarrean argi adieraziak, eta informazio guzti-guztia kontrolatu ez arren mezua ulertzeko modukoak.

- Elkarrizketak jarraitu eta parte hartze egokia izan.
- Mahainguruen punturik garrantzitsuenak jaso.
- Azalpen eta argibide zehatzak ulertu.
- Jasotako informazioa argitu eta baieztatu.
- Parte hartze ezberdinak, narrazioak, deskribapenak eta azalpen laburrak eta ondo antolatutako aditu.
- Iragarkiak, argi ahoskatutako telebistako programak eta ahoskera garbidun pelikulak ulertu. Azken hauetan akzioak eta irudiek bideratzen dute argudioa.

Irakurriaren ulermen-jarduerak

Testuak benetakoak izango dira, errazak eta testuinguru baten baitan agertuko dira eta eguneroko gai arruntei buruzkoak izango dira.

- Ohiko eskutitzak, SMSak eta korreo elektronikoak aditu.
- Gai zehatz nahiz orokorre buruzko informazioa ulertu.
- Testu luzeetan informazio zehatza eta atalik esanguratsuenak aurkitu.
- Testuen asmoa, argudio-egitura eta ondorioak bilatu eta aurkitu.
- Era askotako jarraibideak aditu.
- Argi idatzitako arauak ulertu.

EDUKIAK

ZER FUNTZIO IKASI BEHAR DIRA?

Hizkuntzaren gizarte erabilerak

- Jende-artean ohiko tratatuak egitean erabiltzen diren formulak: agurrak, aurkezpenak, gonbidapenak, beharrezana, adostasuna,...
- Beste pertsona batzuekiko interesa adierazi, sentimenduak.

Komunikazioaren kontrola

- Laguntza eskatu, errepikatze edo berba astiroago egiteko eskatu...

Informazio orokorra:

- Pertsoneri edo eguneroko zereginer buruzko informazioa eman, eskatu eta jardun.
- Gertaeraz jardun eta denboraren hurrenkera adierazi (Lehena, oraina, geroa)...

Iritziak eta balioespenak

- Ekintza, egoera, leku, pertsona eta gauzer buruzkoak.

Osasun egoera, sentsazioak eta sentimenduak

- Gorputzeko sentsazioen eta sentimenduen berri eman.

Eskaerak, argibideak eta iradokizunak

- Zerbitzuak, gauzak, aginduak, aholkuak, baimena, debekua, laguntza, gonbidapena eta proposamenak eskatu, eskaini, onartu edo ezetza eman.

NOLAKO TESTUAK IRAKURTZEN DIRA?

- Izaera sozial edo pertsonala duten mezuak (SMSak, posta elektronikoa, gutunak, oharrak)
- Inprimakiak eta gutun formal errazak.
- Arauak, errezetak eta gidak.
- Iragakariak, programazioak, web orriak.
- Komikiak, kanten letrak, horoskopoak...

NOLAKO TESTUAK ENTZUTEN DIRA?

- Aurrez-aurreko elkarrizketa k eta arlo ezaguner buruzko mezuak.
- Iragakari publikoak eta publizitate testuak.
- Informazio turistikoa eta telefonikoa (eguraldia, ordutegiak...)
- Familiako gorabeheren inguruko eztabaidak.
- Gai ezagunen gainean ondo mailakatutako hitzaldiak.

NOLAKO TESTUAK EKOIZTEN DIRA?

Hitz egiteko

- Harreman sozialak, izaera formaleko interakzioak, emozioak adieraztekoak eta eginkizunen kontakizunak.
- Aurretik prestatutako mahai-inguruak eta eguneroko gaier buruzko iruzkinak eta iritziak.

Idazteko

- Gertaeren narrazioa, deskripzioak, argudio eta iritzi-testu laburrak, artikulua, errezetak, Curriculumak eta lan eskaerak.
- Sentimenduak, erreakzioak, esperientziak, interesak eta informazioa trukatzeko mezuak.

ZER GAI JORRATZEN DIRA?

- Norbera
- Etxea eta inguruak
- Giza eta gizarte-harremanak
- Zerbitzuak
- Osasuna
- Elikadura
- Aisialdia
- Hezkuntza
- Hizkuntza eta komunikazioa
- Zientzia
- Eguraldia
- Ingurumena.

ZER GAITASUN BEHAR DIRA JARDUERA KOMUNIKATIBOAK EGITEKO?

*Eskolako **web orrian** eta liburutegiko **programazio-liburuan** aurkituko dituzu.

Ondoko trebetasunak izango dira kontuan:
 Irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpena, entzundakoaren ulermena eta ahozko adierazpena.
 Ikasleak, ahozkoa egin ahal izateko, idatziaren 2/3 -bi heren- gainditu behar ditu. Ahozkoa gainditzeko ere, gehieneko puntuazioaren 2/3a lortu behar du.

Azterketariak ondoko atazetan nolako trebetasuna erakusten duen ebaluatuko da:
Irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpena, entzundakoaren ulermena eta ahozko adierazpena.

BAREMOA

- Irakurritakoaren ulermena → %25 - 3 ataza, 50 minutu. 20 puntu (gutxienez: 12 puntu).
- Idatzizko adierazpena → %25 - 2 ataza, 60 minutu. 20 puntu (5+15 puntu) (gutxienez: 12 puntu)
- Entzundakoaren ulermena → %25 - 2/3 ataza, 40 minutu. 20 puntu (gutxienez: 12 puntu)
- Ahozko adierazpena → %25 - 2 ataza, 20 minutu. 20 puntu (gutxienez: 12 puntu)

Ikasleak, ahozkoa egin ahal izateko, irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpena eta entzundakoaren ulermena gainditu behar ditu, trebetasun bakoitzean gutxienez 20 puntu aterata; atal bakar batean gutxiago atera badu, puntuazio hori konpentsatu egin daiteke, baina, gutxienez, puntuazioaren %50 atera badu. Kasu honetan hiru puntuazioen artean, gutxienez, 36 puntu izan behar ditu. Ahozko adierazpena gainditzeko ere, gutxienez, 12 puntu atera behar ditu.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, irakurri HEOaren → www.eoi-bilbo.net web orriko Programazioa

GOI MAILA (B2)

HELBURUAK

ZEINTZUK DIRA GOI MAILAKO HELBURU OROKORRAK?

- Hizkuntza erabiltzen duten hiztunekin naturaltasunez komunikatzeko, zehaztasunez eta erraztasunez hitz egitea.
- Ahoz zein idatziz ulertzea, adieraztea eta elkarreragitea, baliabide linguistikoak ondo menperatuz.
- Ikasleari azaldu dakizkiokeen alderdi soziokulturaletan sakontzea eta egoki jokatzeko, kasuan kasuko keinuak eginez, jarrerak hartuz eta erregistroa erabiliz.
- Baliabide linguistiko berriak erabiltzea, alde zuzenetik ikasitakoak ahaztu gabe.
- Akatsei buruzko hausnarketa egitea, norbere burua zuzendu ahal izateko.
- Norberari egokiak iruditzen zaizkion komunikazio- eta ikasketa-estrategiak nahita erabiltzea.
- Ikasketa modu autonomoan planifikatzea.

ZER JARDUERA KOMUNIKATIBO BURUTZEN DIRA?

Ahozko ulermen-jarduerak

- Eztabaida formalak jarraitu, hiztun bakoitzaren iritziak, arrazoiak eta komunikazio helburuak ulertuz.
- Keinuen, isiluneen, geldialdien, etenen, intonazioaren eta tonuaren komunikazio-helburuak jaso, nahiz eta ustekabeen iritsi.
- Norbere ulermena kontrolatu eta argibideak eskatu.
- Bertakoen arteko elkarrizketak eta eztabaidak ulertu.
- Narrazio, deskripzio eta aurkezpenetan ideia nagusiak eta informazioari buruzko ohar zehatzak jaso.
- Iragarki eta argibideen informazioa eta helburua ulertu.
- Ikus-entzunezko mezuak eta grabatutako materialak ulertu.
- Bizitza sozialeko, profesionaleko eta akademikoko grabazioak ulertu.

Irakurriaren ulermen-jarduerak

- Gutun pertsonalak eta formalak nahiz bestelako idazkiak ulertu
- Gertaera, egoera fisiko, aldarte, sentimendu eta desioen deskribapena ulertu.
- Solaskidearen hurbiltasuna igarri. Horretarako harreman mota, kortesia-formulak, informazioa eta erregistroa hartuko dira aintzat.

Ahozko adierazpen-jarduerak

- Gai orokor gehienei buruzko elkarrizketa luzeetan parte hartu.
- Emozioa adierazi eta gertaera nahiz esperientzia pertsonalen garrantzia azpimarratu.
- Norberaren ideiak eta iritziak adierazi.
- Giza-harremanetan ohiko kortesia-formak erabili.
- Eztabaida eta debate formaletan parte hartu.
- Negoziazioetan behar duena zehatz azaldu eta eskatu.
- Familiari, gizarteari eta lanbideari buruzko informazio konplexua jaso, aztertu eta egiaztatu.
- Elkarrizketetan parte hartu eraginkortasuna eta jariora erakutsiz
- Jende aurrean hitz egin ideiak azalduz eta gai orokorrei buruzko iritziak emanez, argitasunez, segurtasunez eta erritmo erregularrez.

Idatzizko adierazpen-jarduerak

- Gai zehatzei eta abstraktuei buruzko informazioa, ideiak eta ikuspuntuak eman; informazioa egiaztatu; galderak egin; eta arazoak zehaztasun nahikoaz azaldu.

- Gutunak, oharrak eta mezuak idatzi, informazioa emateko edo berehalako informazioa eskatzeko.
- Txostenak, iritzi- eta informazio-testuak eta sormenezko testuak idatzi.

EDUKIAK

NOLAKO TESTUAK IRAKURTZEN DIRA?

- Gutun formalak, pertsonalak, akademikoak zein profesionalak.
- Web orriak, blogak eta antzekoak.
- Jarraibideak eta erabilpen-arauak.
- Txostenak.
- Prentsa: albisteak, dibulgazio-artikuluak eta espezialitateari buruzko artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, editorialak, iritzi-artikuluak.
- Abestien hitzak.
- Biografiak.
- Kontakizunak, ipuinak eta nobelak....

NOLAKO TESTUAK ENTZUTEN DIRA?

- Elkarrizketa informalak, atzean zaratatxoak dituztenak eta hainbat gairi buruzkoak; eta elkarrizketa formalak.
- Iruzkinak, iritziak eta arrazoiketak, kultura arloko eta gaur egungo gai ezagunei buruzkoak.
- Gai nahiko ezagunen inguruko hitzaldiak.
- Gaur egungo gertaerak eta gaiak.
- Kontakizunak.
- Dokumentalak, telebista eta bideo-erreportajeak...

NOLAKO TESTUAK EKOIZTEN DIRA?

Hitz egiteko

- Kulturaren esparruko eta gaur egungo gai ezagunei buruzko iruzkinak, iritziak eta arrazoiketak.
- Mezua argitu, azaldu, errepikatu eta laburtzekoak.
- Elkarrizketak.
- Pertsona, objektu, jarduera, zerbitzu, toki, bizi-baldintza, interes, sentimendu eta alderdi soziokulturalen deskribapenak eta alderatzeak.
- Gertaera, esperientzia, pasadizo eta proiektuen azalpen zehatzak.
- Gertaera historikoak eta istorioak.
- Gaien aurkezpena.
- Liburu, telebista-programa eta filmen balorazioak.
- Ekitaldi, liburu, film eta pertsonen aurkezpenak...

Idazteko

- Testu sozial formal eta informalak.
- Arlo pertsonaleko eta ikasketa nahiz lan arloko gutun formalak.
- Gai ezagunei buruzko iritzi- eta arrazoiketa-testuak.
- Txostenak.
- Esperientziak, istorioak eta benetako nahiz alegiazko gertakariak.
- Plan eta egitasmoen deskribapenak.
- Biografiak.
- Laburpenak.
- Liburuaren aurkezpenak.
- Eskemak...

ZER GAI JORRATZEN DIRA?

- Norbera, etxea, eta inguruak
- Aisialdia
- Giza, gizarte-harremanak eta zerbitzuak
- Osasuna, elikadura
- Hezkuntza, hizkuntza eta komunikazioa
- Zientzia, eguraldia eta ingurumena.

ZER GAITASUN BEHAR DIRA JARDUERA KOMUNIKATIBOAK EGITEKO?

Eskolako **web** orrian eta liburutegiko **Programazio-liburuan** aurkituko dituzu.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ondoko trebetasunak izango dira kontuan:

Irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpena, entzundakoaren ulermena eta ahozko adierazpena.

Ikasleak, ahozkoa egin ahal izateko, idatziaren 2/3 -bi heren- gainditu behar ditu. Ahozkoa gainditzeko ere, gehieneko puntuazioaren 2/3a lortu behar du.

BAREMOA

- Irakurritakoaren ulermena → %25 - 3 ataza, 60 minutu. 30 puntu (gutxienez: 20 puntu, 30etik).
- Idatzizko adierazpena → %25 - 2 ataza, 80 minutu. 30 puntu (gutxienez: 20 puntu, 30etik)
- Entzundakoaren ulermena → %25 - 2/3 ataza, 40 minutu. 30 puntu (gutxienez: 20 puntu, 30etik)
- Ahozko adierazpena → %25 - 2 ataza, 20 minutu. 30 puntu (gutxienez: 20 puntu, 30etik)

Ikasleak, ahozkoa egin ahal izateko, irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpena eta entzundakoaren ulermena gainditu behar ditu, trebetasun bakoitzean gutxienez 20 puntu aterata; atal bakar batean gutxiago atera badu, puntuazio hori konpentsatu egin daiteke, baina, gutxienez, puntuazioaren %50 atera badu. Kasu honetan, hiru puntuazioen artean 60 puntu izan behar ditu. Ahozko adierazpena gainditzeko 20 puntu behar ditu gutxienez.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, irakurri HEOaren → www.eoi-bilbo.net web orriko Programazioa.

C1 MAILA (GAITASUN MAILA)

HELBURUAK

Lau komunikazio gaitasun oinarritzkoen helburu komunak

- Ikasleek ikasten duten hizkuntzan erraz komunikatzea, bai ohiko egoeretan eta bai egoera berezi eta zailagoetan ere, esparru pribatuan zein publikoan, lanbidean eta hezkuntzan. Beraz, mintzatu eta idazteko jariora eta sormena behar dute, eta egituraren eta kontzeptuen aldetik konplexuak diren testu idatziak eta ahozkoak ulertzeko gaitasuna.
- Ideia nagusiak ulertzea eta berriazko informazioa ateratzea askotariko ahozko eta idatzizko testuetatik, ikasten duten hizkuntzaren aldaera hedatuenean, estilo ezberdintasunak antzemateko sena erakutsiz eta, ahozko komunikazioan, benetako testuinguruaren zailtasunak gaindituz.
- Mintzakideen jarrerak, gogo aldarteak eta asmoa eta haien arteko harremanak ulertzea.
- Ahozko eta idatzizko testu mota bakoitzaren xedea eta funtzioa antzematea.
- Hainbat egoera ezberdinetan berehala eta egoki erreakzionatzea.
- Komunikazio estrategiak eraginkortasunez erabiltzea, bai hizkuntzazkoak eta bai bestelakoak.
- Lexikoa eta egiturak gai jakin baten eta komunikazio egoera baten arabera moldatzea.
- Ahozko eta idatzizko kodeen diferentziei antzematea, eta bai ikasten duten hizkuntzaren erregistro eta aldaerei ere.
- Hizkuntza egiten den herrialdeetako gizartea eta kultura ahalik ongien ezagutzea, hizkuntza hobeki ulertzeko eta komunikazioa aberasteko.
- Oinarriak ezartzea hizkuntza norbere kabuz ikasten jarraitzeko, baita beste hizkuntza batzuk ikasteko ere, behin ikasketak amaiturik.

Lau komunikazio trebetasun oinarritzkoen helburu berriazkoak

- **Irakurmena**
 - Ideia orokorra ulertzea, alderdi nagusiak eta garrantzizko xehetasunak bereiztea hainbat motatako testuetan, gaia konkretua izan nahiz abstraktua.
 - Iritzi eta jarrerei antzematea, bai eta haien egilearen asmoari eta aldarreei ere.
 - Ideiak eta informazioa ateratzea egitura konplexuko testuetatik, kultur erreferentziak eta maiz erabiltzen diren esapide idiomatikoak izaten dituzten horietatik.
 - Idatzizko testu edo agiri bat zein motatakoa den eta zer funtzio duen jakitea.
 - Irakurtzeko modu ezberdinetara moldatzen jakitea: irakurketa osoa, selektiboa, estentsiboa, interpretaziozkoa.
- **Entzumena**
 - Ahoz ematen diren hainbat motatako testuen esanahi orokorra, alderdi nagusiak eta xehetasunak eta mintzaten direnen iritziak eta jarrerak aski erraz ulertzea, baita oso ongi entzuten ez denean ere, zuzeneko saioetan nahiz emitituetan, testuak ohiko abiaduran ahoskatuak, azentu, erregistro eta estilo ezberdinetan.
 - Gai abstraktu edo konkretuen gaineko informazioa eta testuaren barneko ideiak ateratzea, baldin eta diskurtsoaren egitura argia bada eta gutxitan erabiltzen den esapiderik ez badu.
 - Helburu bat lortzeko jarraibideak ulertzea. Testu baten funtzioa eta mota ezagutzea, bai eta hura ematen duenaren asmoa, jarrera eta aldartea ere.

- **Idazmena**
 - Testu argi, ongi egituratu eta egokiak idaztea, helburu eta funtzio ezberdinetarako.
 - Ikuspuntuak nahikoa luze azaltzea, ideiak eta informazioa modu koherentean antolatuz, argudio eta adibide aproposak erabiliz eta azalpenari amaiera egokia emanaz.
 - Testuaren helbururako eta irakurleentzako estilo eta erregistro egokiak aukeratzea.
 - Hizkuntza malgutasun eta eraginkortasunez erabiltzea. Halaber, hiztegi zabala erabiltzea, testuaren lokailu eta markatzaile ugari eta egokiak, eta askotariko egitura eta ñabardurak, kasuan kasuko komunikazio egoerari dagozkionak.
- **Mintzamena**
sleek gaitasun hauek lortu behar dituzte:
 - Interes orokorreko gaietarako buruz mintzatzeko jariora, bat-batekotasuna eta eraginkortasuna izatea –bai bakarrizketan bai elkarrizketan-; hizkuntzaren baliabideak eta baliabide estrategikoak behar bezala eta eraginkortasunez erabiltzea, eta ahozko komunikaziorako gizartean ezarrita dauden konbentzioei jarraitzea.
 - Egoki erantzun eta erreakzionatzea hainbat egoeratan, hizkuntzaren erabilera emozionala, aipamenezkoa eta umorezkoa baztertu gabe.
 - Aktiboki parte hartzea elkarrizketa informalean, interes orokorreko gai konkretu zein abstraktuak erabiliz. Ikasleak zerbait kontatu edo deskribatu beharko du zehatz-mehatz, bere ideiak azaldu eta bere jarrerak defendatu.
 - Eztabaida formalean informazioa aurkeztea, iritziak azaldu, justifikatu eta defendatzea, hipotesiak adieraztea eta aukerak ebaluatzea.
 - Elkarrizketa batean solaskideei eragiteko moduan jardutea, ekinbidea hartuz; eztabaidatzen diren ideiak zabaldu eta garatzea eta egoki aritzea bat-batean, aurrez prestatutako gidoi edo galdetegiaren beharrik izan gabe.
 - Askotariko gaietarako iragarki, mezu eta jarraibideak ematea.
 - Arazo baten zergatikoak azaltzea, egin beharreko urratsak eztabaidatzea, aukerak alderatu eta erkatzea.
 - Hainbat iturritatik jasotako informazio zehatza eta argudioak laburtu eta adieraztea.

EDUKIAK

Prozedura-edukiak

- **Komunikazio egoerara moldatzea** (zerbait aditzeko edo adierazteko).
 - Lortu nahi den informazioaren arabera irakurketa zein entzute modu egokia (osoa/orokorra?,selektiboa/hautakorra, zehatza, interpretaziozkoa) erabiltzea.
 - Adierazpen mota moldatzea, kontuan izanik mintzaten edo idazten duenaren asmoa eta egoeraren osagaiak (mintzakidea, hitz egiteko txanda, esparrua, adierazpidea...).
 - Inguruabarretara moldatzeko malgutasuna.
- **Testuko osagai esanguratsuak ulertzea.**
 - Ondorioak ateratzea, hipotesiak sortu eta adieraztea, ideietan, aurrekontzeptuetan eta aldeez aurreko ezagueretan oinarriturik.
 - Loturak, antzekotasunak eta diferentziak bilatzea, elementu esanguratsuak orokortzea.
 - Ulertze motak: osoa, hautakorra, zehatza, interpretaziozkoa etab.
- **Adierazpena:** diskurtsoa itxuratu eta artikulatzea hitzezko eta hitzik gabeko osagaiak elkartuz
 - Ideiak antolatu eta sekuentziatzea
 - Kausa-ondorio erlazioak..
 - Diskurtsoa egituratu eta kontrolatzeko gaitasuna, hauek direla bide:
 - ✓ Gaiaren antolaketa.
 - ✓ Kohesioa.
 - ✓ Ordena logikoa.
 - ✓ Estiloa eta erregistroa.
 - ✓ Eraginkortasun erretorikoa.

Ahozko adierazpenari dagokionez, aipatu alderdiez gain aintzat hartuko dira honako estrategia hauek:

- Arriskuak saihesteko estrategiak: ordezkapenak, konponketak, atzera egiteak etab.
- Konpentsaziozko estrategiak: itzulingeruak, hurbilketak, keinuak, itzulpenak etab.
- Enuntziatu bat egiteko behar diren osagaiak hautatzea (lexikoa, erregistroa, azentua, tonua etab.).
- Luzamendurako edo denbora irabazteko estrategiak: betegarriak, errepikapenak etab.
- Autokontrolerako estrategiak: esandakoa zuzendu edo beste modu batera esan.
- Elkar-eragiteko estrategiak: laguntza eskatu, etab.
- Elkar laguntzeko estrategiak.

- Esanahiaren negoziatorako estrategiak: ulertu ez dena berriz azaldu edo ulertu denaren laburpena eman.

Hizkuntza ikasteko estrategiak

• Zeharkakoak

- Estrategia metakognitiboak:
 - ✓ Ikas prozesuaz jabetzea.
 - ✓ Norberaren ikas estiloak ezagutzea.
 - ✓ Ikasketa planifikatzen jakitea, ikas prozesuaren ardura izatea, jarrera aktiboa hartzea.
 - ✓ Ikasgelatik kanpo ikasten jarraitzeko baliabideak erabiltzea, ikaskuntzan autonomo izaten ahalegintzea.
 - ✓ Hizkuntza erabiltzeko (ulermen nahiz adierazpen mailan) aukerak bilatu (telebista, irratia, Internet, blogak, mintza-lagun taldeak, gramatikak, hiztegiak...)
- Estrategia afektiboak:
 - ✓ Norberaren gaitasunean konfiantza izatea eta jarrera baikorra hartzea, huts egiteko beldurra eta lotsa gainditzeko eta jokabide kritikoa garatzeko.
 - ✓ Egitura eta hiztegi ikasi berriak erabiltzen ausartzea.
- Estrategia sozialak:
 - ✓ Arreta eta lankidetzat bultzatu eta garatzea.

• Zuzenak

- Buruz ikasteko teknikak:
 - ✓ Testu, esaldi, multzo semantiko, errima eta abarren barnean buru-erlazioak sortzea.
 - ✓ Ikusitakoak eta entzundakoak lotzea.
 - ✓ Zenbait teknika baliatzea (aldioko berrikustea, zerrendak, sailkapenak).
- Estrategia kognitiboak:
 - ✓ Informazio berria aurretik jasotakoarekin lotzea
 - ✓ Gertaerak behatu eta hipotesiak egitea.
 - ✓ Dedukziozko arrazoibideak garatzea.
 - ✓ Komunikazioaren eta hizkuntzaren arteko loturaz gogoeta egitea (komunikazio-ekintza, eta komunikazio egoeraren osagaiak).
 - ✓ Ulertze induktiboa eta osoa lortzea, ikasten ari den hizkuntza erabiltzeko sistemen eta arauen dedukzioaren bitartez, testuinguruan jarritako testuetatik abiatuz, edo norberaren hizkuntzarekiko analogiaz.
 - ✓ Behatutako arauak orokortzea.
 - ✓ Ikasten ari den hizkuntzaren ezaugarriak eta ama-hizkuntzarenak erkatzea.
 - ✓ Norberaren oharrak idaztea, laburpenak egitea eta norberaren gramatika antolatzea.
- Ebakera eta intonazioko teknikak erabiltzea:
 - ✓ Jatorrizko itunak imitatzea edo testu adierazgarriak (kantak, olerkiak, esaldi zailak...) buruz ikasi eta maiz errepikatzea.

Kontzeptu-edukiak

Gaitasun Mailan honako mintza, funtzio eta egintzetan sakonduko da zehaztasun eta ñabardura maila handiagoa lortzeko eta aldi berean zuzentasuna eta komunikazioaren helbururako moldapena areagotzeko:

Gizarte erabilera

- Agurtzea, despeditzea, interpelazioak eta aurkezpenak.
- Esker ona adieraztea.
- Norbaitez galdetzea.
- Zorionak ematea.
- Barkatzeko eskatzea.
- Konplimenduak egitea.
- Dolumina agertzea.
- Gonbitak egitea, onartzea eta errefusatzea.

Informazioa eskatzea eta ematea

- Pertsonen eta gauzen gaineko informazioa eskatu eta ematea; ordutegiak, datak eta tokiak; gertaerak, prozesuak, jarduera eta egintzak.

- Inori zerbait badakien galdetzea eta gauza bat dakizun ala ez adieraztea, edo jakitea nondik heldu zaizun.
- Gauza bat egia den ala ez galdetu eta baieztatzea.

Deskripzioa eta kontaketa

- Pertsonak, gorputzaren eta gogoaren egoerak, objektuak eta haien erabilerak, sentimenduak, prozesuak, aldaketak eta sistemak, bidaiak eta tokiak deskribatzea.
- Ezaugarriei buruzko iruzkinak egitea.
- Lehengo, oraingo eta geroko gertaera bat kontatzea.

Aurreikuspenak, asmoak, xedeak eta hipotesiak

- Pertsonen, gauzen, lehengo eta geroko gertaeren gainean hipotesiak egitea.
- Gogoeta egin eta ondorioak ateratzea.
- Ekintzen xedea adieraztea.

Iritziak eta balorazioak

- Interesa edo interes falta adieraztea.
- Gustuak eta zer nahiago den adieraztea.
- Denetarikoa arte adierazpenak baloratzea.
- Ados zauden ala ez adieraztea.
- Iritziak eskatu eta ematea.
- Iritzi edo ikuspuntu bat arrazoitu eta argudiatzea.
- Uste bat adieraztea.
- Zehaztasunez alderatu eta erkatzea.
- Duda adieraztea.
- Eszeptizismoa adieraztea.
- Ziurtasun gradu ezberdinak adieraztea.
- Gertaera bat nolakoa den adieraztea: itxurazkoa, egi-antzekoa, litekeena edo ezinezkoa, gertakorra edo gertagaitza, erraza ala zaila, beste baten ondorio logikoz, beharrezkoa ala behar gabea, nahitaezkoa ala ez nahitaezkoa, debekatua, auskalokoa.

Sentimenduak, jarrerak eta aldarreak

- Gogo aldarre bat eta haren arrazoiak adieraztea: satisfazioa edo insatisfazioa, mirespena, estimua, poza edo tristezia, esker ona, konfiantza, konfiantza falta, beldurra, asperdura, larrimina, indiferentzia eta haserrea.
- Gorputz edo osasun aldarre bat adieraztea.
- Gurari bat adieraztea.
- Damua adieraztea.
- Portaerak kritikatzeko.
- Barkazioa eskatu eta barkatzea.
- Erasiak eta kexak egitea.

Ekintzarako asmoak (funtzio pertsuasiboa edo induktiboa):

- Norbaitek zerbait egiteko asmoa, xedea ala erabakia hartu duen galdetzea.
- Zerbait egiteko asmoa, xedea eta erabakia hartu duela adieraztea.
- Promesak egitea.
- Jarraibideak eskatu eta ematea.
- Ekintza konkretu bat mesede gisa, premia gisa edo obligazio gisa eskatzea.
- Laguntza eskatu eta eskaintzea.
- Zerbait egitea eskaini edo uko egitea.
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman ala ukatzea.
- Zuzen nahiz zeharbidez aginduak ematea.
- Debekatzea.
- Norbaiti zerbait egiteko obligazioa kentzea.
- Erreklamazioak egitea.
- Zerbait egin nahi den galdetzea.
- Norbaitek zerbait egin dezan nahia adieraztea.
- Kontseiluak eskatu eta ematea.
- Ekintza bat proposatu, iradoki edo gomendatzea.
- Limurtzea.
- Abisuak, gaztiguak eman edo ernaraztea.
- Mehatxatu eta ikaratzea.
- Zerbait egitera bultzatzea.

- Hitzordu bat hartzea. Norbaitekin hitzordua jartzea.

Diskurtsoaren antolamendua

- Gai baten hasiera iragartzea.
- Diskurtsoan tarteki hitzak sartzea (luzamendurako, pentsatzeko beta izateko).
- Digresio baten hasiera markatzea.
- Aurrera segitzea.
- Norbere burua zuzentzea, lehengoa ukatzea, duda egitea.
- Enfasia adieraztea.
- Zehaztea eta ñabartzea.
- Adibideak ematea.
- Gaia aldatzea.
- Gogora ekartzea, aipatzea eta zeharkako aipamenak egitea.
- Definizioak ematea.
- Azalpen batean gauzak banan-banan aipatzea.
- Denbora sekuentzia bat adieraztea.
- Laburpena egitea.
- Grafikoak, taulak eta estatistikak interpretatzea.
- Txostenak egitea.
- Diskurtsoan ideiak eta kontzeptuak lotzea.
- Bukaeraren hasiera eta ondorioa markatzea.
- Ahozko diskurtsoaren konbentzioak: hitza eskatu eta ematea, etetea, hitz egiten uztea.
- Telefonoz hitz egiteko oinarrizko konbentzioak (komunikazioa nola hasi, norbaitez nola galdetu, mintzakideari itxoiteko eskatu, ongi aditu ala ulertzen den baieztatu, adio esatea).
- Kartak idazteko konbentzio oinarrizkoak (hasierako formulak, trataerakoak, ondorioa).

Komunikazioari nola etsi eta kontrolatu

- Norbaiti zerbait errepikatzeke edo mantsoago hitz egiteko eskatzea.
- Hitz edo esapide batek zer esan nahi duen edo nola itzultzen den galdetu eta adieraztea.
- Hitz edo esapide bat nola esan edo nola idazten den galdetu eta adieraztea.
- Mezu bat ulertu den ala ez galdetzea.
- Egiatzatzea norbaitek guk ulertu uste izan duguna benetan esan duen.
- Ulertu dugula baieztatzea edo aurrera segitzeko adieraztea.
- Enuntziatu bat edo hiztunak duen asmoa argitzea.
- Parafraasiak egitea.
- Bozaren modulazioak eskatzea: ozenago edo apalago mintzatzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ondoko trebetasunak izango dira kontuan:

Irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpena, entzundakoaren ulermena eta ahozko adierazpena.

Ikasleak, ahozkoa egin ahal izateko, idatziaren 2/3 -bi heren- gainditu behar ditu. Ahozkoa gainditzeko ere, gehieneko puntuazioaren 2/3 lortu behar ditu.

BAREMOA

- Irakurritakoaren ulermena → %25 - 3 ataza, 85 minutu. 30 puntu (gutxienez 20 puntu, 30etik).
- Idatzizko adierazpena → %25 - 2 ataza, 90 minutu. 30 puntu (gutxienez 20 puntu, 30etik)
- Entzundakoaren ulermena → %25 - 2/3 ataza, 45 minutu. 30 puntu (gutxienez: 20 puntu, 30etik)
- Ahozko adierazpena → %25 - 2 ataza, 20 minutu. 30 puntu (gutxienez: 20 puntu, 30etik)

Ikasleak, ahozkoa egin ahal izateko, irakurritakoaren ulermena, idatzizko adierazpena, eta entzundakoaren ulermena gainditu behar ditu, trebetasun bakoitzean gutxienez 20 puntu aterata; atal bakar batean gutxiago atera badu, konpentsatu egin daiteke puntuazio hori, baina, gutxienez, puntuazioaren %50 atera badu. Kasu honetan, hiru puntuazioen artean 60 puntu izan behar ditu. Ahozko adierazpena gainditzeko 20 puntu behar ditu gutxienez.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, irakurri HEOaren → www.eoi-bilbo.net web orriko Programazioa.

BIBLIOGRAFIA
EUSKERA SAILA 2008 – 2009 IKASTURTEA
DEPARTAMENTO DE EUSKERA – CURSO 2008-2009

A 1 MAILA (Nivel A 1)

*ADITU

LABAYRU

A 2 MAILA (Nivel A 2)
OINARRIZKO MAILA (NIVEL BASICO)

*HITZETIK HORTZERA, IKA 2. maila

IRAKURTEKO (libros de lectura)

“ASTEROIDEA”	J. LARTATEGI
“GALTZAGORRIA”	J. LARTATEGI
“MUSEOKO HILTZAILEA”	J. LARTATEGI
“KATU BELTZA”	J. MILNE

B 1. 1 MAILA (Nivel B1.1)

*BAKARKA 4

IRAKURTEKO (libros de lectura)

“SHERLOCK HOLMESen ISTORIOAK II”	ELKAR
“OSTEGUNAK”	J. ARRETXE

B 1. 2 MAILA (Nivel B1.2)
TARTEKO MAILA (NIVEL INTERMEDIO))

*EUSKERA B 1. 2

RAMON ETXEBARRIA

IRAKURTEKO (libros de lectura)

“URDAIBAIKO IPUIN ETA KONDAIRAK”	EDORTA JIMENEZ
“KUTSIDAZU BIDEA IXABEL”	J. SAGASTIZABAL

ERABILGARRIAK (libros útiles)

“LONDRESEN NAGO AITONAREKIN”	J. ITURRALDE
“BENETAKO LAGUNEN ATERBEA”	P. ARISTI

B 2. 1 MAILA (Nivel B 2.1)

*ESKOLAKO APUNTEAK

“PIJAMA MARRADUNAZ JANTZITAKO MUTIKOA”	J. BOYNE
“AMAREN ESKUAK”	K. JAIO
“HOGEITA HAMABOST KILO ESPERANTZA”	A. GABALDA

ERABILGARRIA (libro útil)

“BARRIKADAK”	P. ZUBIZARRETA
--------------	----------------

B 2.2 MAILA
GOI MAILA
(NIVEL AVANZADO)

IRAKURTEKO(Libros de lectura)

“HAMABOST ZAURI”	K. JAIO
“ZAZPI KOLORE”	J. ARRETXE
“EZTIA ETA OZPINA”	P. ZUBIZARRETA
“EUKIEN BAZKA”	H. ETXEBERRIA
“ZU BEZAIN AHUL”	K. JAIO

ERABILGARRIAK (libros útiles)

“EZER BAINO LEHEN”	A. ITURBE
“BI LETTER...”	B. ATXAGA
“ZERUAK JAUSI ZIRENEKOA”	J. URKIXO
“INDIANOA”	TXILIKU
“TRAIZIOAK”	I. ZALDUA

C 1 MAILA

GAITASUN MAILA (CURSO APTITUD)

IRAKURTEKO (libros de lectura)

“AROTZAREN ESKUAK”	A. LADRON
“INESAREN BAL	H. ETXEBERRIA
“JAUN ZURIA”	J.M. ETXEBARRIA
“GEREZI DENBORA”	INAZIO MUJICA
“BILBO IRRIBARREZ”	MIKEL ZARATE

ERABILGARRIAK (libros útiles)

“EUSKALDUNAREN ANEKDOTAK”	J.L GOIKOETXEA
“NARRAZIOAK”	J. SARRIONANDIA
“URREGILEAREN ORDUAK”	P. ARISTI
“NEW YORKEKO KRONIKA BELTZA”	G. GARATE
“EDO ZU EDO NI”	I. ROZAS
“BIHOTZ BI”	R. SAIZARBITORIA
“HURRENGO ITSASGOREN ZAIN”	J. PENADES
“ETA SUGEAK EMAKUMEARI ESAN..”	L. OÑAEDERRA

ESTEKA INTERESGARRIAK (LINKA-AK)
(Enlaces de interés)

- Araugintza - Ariketak
www.pnte.cfnavarra.es/eibz/baliabideak/araugintza/0_beste/inprimatzeko.htm
- Ariketak
www.pnte.cfnavarra.es/iesiturr/materiala/ion/atari/index.htm
- Atsotitzak
www.ametza.com/bbk/htdocs/hasiera.htm
- Audio – ipuinak
<http://entzun.blogspot.com/audioipuinak/>
- Azpidazki
www.ehu.es/azpidazki/
- Bilbo Hiria irratia
www.bilbohiria.com/
- EITB
www.eitb.com/eu/
- Entzuteko literatura
<http://pkeizagirre.podomatic.com/>
- EOI Eibar HEO
<http://es.geocities.com/anaurte/>
- Euskal aditz laguntzailea
<http://euskaljakintzaaditza.weebly.com/index.html>
- Euskal Jakintza

- <http://euskaljakintza.blogspot.com/arauak>
- Euskal Lokuzioak
<http://intza.armiarma.com>
- Euskalterm
http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm
- Euskaltzaindia
www.euskaltzaindia.net/
- Euskara hobetzen
www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/en/country/US/user/anon/page/hobetzen;jsess
- Euskara ikasteko jokoak
<http://www.euskaraikasteko.com/index.html>
- hiru.com
<http://www.hiru.com/>
- Hizkuntza Estola Ofizialak
<http://www.eoieuskadi.net/eu/home.php>
- Hiztegiak
http://www.euskaraz.net/Euskara_Ikasten/Hiztegiak
- Ikasbil.
<http://www.ikasbil.net/jetspeed/>
- Norteko Ferrokarrila
<http://norteko.elhuyar.org/>
- Osakidetzako azterketak
<http://ce.osakidetza.net/eus/ce.html>
- Santurtzieus
<http://ikagela.santurtzieus.com/course/view.php?id=21>